

Joxe Iriarte, *Bikila*

Kritika eta autokritika

E

zker eraldatzailea –are iraultzailea bada– oinarri-oinarritik da sistemarekiko kritikoa. Eta zeregin horretan nahiko sendo ikusten du bere burua. Alabaina, deserosoa egiten zaio –zaigu–, bere –gure– buruarekiko edo taldearekiko jarduerarekin –auto–kritikoa izatea, batez ere jarduera hori berria denean.

Adibidez, *Berriako* zutabegile bati honako haxe harrigarria egin zaio: “lehen [ezker abertzaleak] politika egiteko modu bat oldarkorregia-edo zelako kritikatzeko zutenek, orain politika bigunegiak kritikatzeko”. Nire ustez, esaldi horrek ez luke inor harritu behar. Izan ere, egoera, berria izateaz gain, hain da konplexua eta zaila (batez ere krisi sistemikoari nola aurre egin eztabaidatzerakoan), ezen harrigarria hausnarketa eta irakurketa kontraesankorrak ez izatea litzatekeen. Kontua da zer eta zer-nolako helbururekin kritikatzeko den.

Esate baterako, nik txalotu egin dut –eta aldeko botoa eman ere bai– ezker abertzaleak hartu duen bide berria –eta horrek dakarren iraganeko estrategiari buruzko nolabaiteko autokritika–, nire uste apalean aurrekoa baino askoz zuzenagoa delako. Urteak eman ditut esplikatzen, ETAre existentzia –alferrikako sufrimendua sortzeaz gain– gainditu ezinezko oztopoa zela indarrak metatzeko eta ezker abertzaleak –eta honen aukera alternatiboek– “estrategia konpartituak” lantzeko. Baina antzeko iritzia izan dut instituzioetan lan egitea lehenetsi eta sistema kudeatzera lotu eta mugatu den ezkerarekiko: EA, EB, ERC, BNG (PSOE jadanik niretzako ez da ezker). Izan ere, bi estrategia horiek, bakoitzak bere berezitasunekin eta arazoekin, funtsean, herria eta ekimen herrikoia ikuspegi ordezkatzailerako konpartitzen dute, eta bigarrenak gainera, sisteman integratzera garamatza.

Egun borroka armatuaren auzia iraganaren gauza da. Instituzioarekiko mende-



DANI BLANCO

kotasun arazoak berriz –eta boterea konpartitu gabe eraginkorra izatea ezinezkoa dela pentsatzeak dakarren morrontza– gaurkotasun osoa dauka. Iraganarekiko autokritika ondo dago, baina, garrantzi handiagoa du gaur egun praktikatzeko dena aztertzeak, eta kritikatu behar bada hala egiteak. Batez ere, oposizio izatetik instituzio esanguratsuak (Gipuzkoako Aldundia eta hiriburua) gobernatzera iritsi denean.

Ezin ahaztu benetako nagusiak edo botere faktikoak kapitalaren jabeak direla eta izugarritzko presioa egiten dietela instituzioei. Eta beharrezkoa izanez gero, Grezian eta Italian bezala, beren esanetara egongo diren gobernuak ezartzen saiatzen dira. Izan ere, Europako estatuak, naziotasunaren aldetik desberdinak izan arren, klase izaeraren aldetik denak dira burgesak, “ezker-rra”k gobernatzen dituenak barne.

Horregatik, ezkerak –nazionalki “independenteak” diren estatuetan ere– guda zelaiztat eta etsaiaren lurraldetzat hartu behar du instituzio burgesen eremua, nahiz eta hor lan egitera behartu izan, eta batzuetan baita gobernatu ere. Bestela, lehenago edo geroago irentsiak izango dira.

Ezkerak inoiz ezin du goxo egon instituzioetan, aitzitik, dagoena ondo eta modu ondrotuan kudeatzen saiatu behar du –batez ere krisi garaietan–. Gobernuan edo oposizioan sistemaren aurka aritu behar du, eta kanpoan, esplotatu eta zapalduen eta ingurumenaren defendatzaileen mugimendu sozialak eta borrokak sustatu (ikuspin-tu antikapitalista batetik) eta lan horri lehentasuna eman.

Ez dago “instituzioetan aritzeak sisteman integratzera kondenatzen gaitu” dioen maldizio biblikorik, baldin eta zertarako gauden argi eta garbi badugu. Hortik dator eztabaidaren beharra.

Gaizki esanak barkatu, ondo esanak onartu! ■



Iraganarekiko autokritika ondo dago,
baina, garrantzi handiagoa du gaur
egun praktikatzeko dena aztertzeak
eta kritikatu behar bada hala
egiteak. Batez ere, oposizio izatetik
instituzioesanguratsuak
(Gipuzkoako
Aldundia eta hiriburua)
gobernatzera iritsi denean